



ACT-MC-2019/0036

KONTRATAZIO-MAHAIAREN AKTA
"EPTISA eta LKS enpresen proposamenak baztertea"

Kontratuaren xedea eta gai-zerrenda: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ERREPIDE SAREKO EGITURETAN ETA EZPONDETAN JARRITA DAUDEN AINGURAKETAK IKUSKATZEA ETA KONTROLATZEA. (5-O-28/2018). EPTISA eta LKS enpresen proposamenak baztertea.

Eguna: 2019ko maiatzaren 27an

Hasiera/amaierako ordua: 9:00/10:00

Tokia: Bide Azpiegituretako Departamentuaren 2.1. gela (Miramon pasealekua, 166.)

Bertaratutakoak:

Mahaiburua: Iñigo Zufiria Zatarain, Bide Artapeneko eta Kudeaketako Zerbitzuko burua.

Bokalak: Agustín López-Dóriga Fernández, Bide Azpiegituren Proiektuetako eta Eraikuntzako Zerbitzuko burua.

Maidar Apaolaza Lizarazu, Bide Azpiegituren eta Berrikuntza Zerbitzuko ITOPa.

Itziar Aristondo Fernández, Ogasun eta Finantza Departamentuko Kontuhartzailletza eta Auditoretza Zerbitzuko burua.

Elixabete Martinez Iruretagoiena, Departamentuko idazkari teknikoa.

Idazkaria: M^a Carmen Delgado Vallejo, Kontratazio Zerbitzuko buruaren orde.

Ekintza honetarako mahaiburuak M^a Carmen Delgado Vallejo izendatu du idazkari bezala, administratibo berezien agiriko 24. baldintzak dionaren arabera.

2019ko maiatzaren 20an bigarren artxiboak ireki ziren. Egintzan, kontratazio-mahaiak adierazi zuen, dagokion zerbitzuko teknikariei eskatuko zitzaizela eskaintzen dokumentazioa aztertzeko. Izan ere, 2. Artxiboan sartu duten informazioa artxibo horri dagokiola aztertu beharko dute, eta ez 3 zenbakidun artxiboari.

Goian aipatutako lekuan eta orduan, aurrez adierazitako kideekin, Kontratazio-mahaia eratu da behin teknikariak dokumentazioa aztertuta. Ondorengo ikusi da:

- **Eptisa** enpresaren eskaintzan, 5-6 orrian "...equipo asesor formado por..." Lan egingo duen lan-taldearen izen-abizenak eta esperientziak agertzen direla. Eta "Geologa" sexua bereizten dutela.
- **LKS** enpresaren eskaintzan, 55 orrialdean, Lan-taldearen izen-abizenak eta esperientzia agertzen direla.

Aipatu informazioa formulen bitartez baloratzen da, eta lizitatzaileek 3. Artxiboan sartu behar dute. Horrela eskatzen da administrazio-klausula partikularren agiriko ezaugarrien taulako 18.klausulan: **Formulak aplikatuz balioesteko irizpideen artean, bi hauek aipatzen ditu: 2. Bestiak Lantaldearen esperientzia 0-10 puntu, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna 0-2 puntu eta Euskara 0-1 puntu.**

Bileran, kide guztiak ados daude 3.artxiboan sartu beharreko informazioa sartu duela 2.artxiboan.



Beraz, Azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 139 artikuluari jarraituz eta baita agiriko baldintza administratiboaren berezien 20.2 eta 25.2.3 klausulei ere, EPTISA eta LKS enpresen proposamenak prozeduratik kanpo geldituko dira. Baztertzeko ebazpena jakinaraziko zaie enpresei.

Eta horrela jasota gera dadin egin da Akta hau, eta berau onartu ondoren egintza amaitutzat eman da.

Donostian, 2019ko maiatzaren 27an

Mahaiburua

Sin.- Iñigo Zufiria Zatarain

IDAZKARIA, ordezkapenez

Sin.- M^a Carmen Delgado Vallejo